



1. Argibide orokorrak

Biztanleria (2017):	3.944
Zabalera:	175,01 km ²
Nafarroa2000 zer eskualdetakoa:	Ipar-mendebaldea (ikus mapa)
Udalerriak:	Arano, Areso, Goizueta, Leitza

2. Komunitatea eta osasuna

Leitzako eskualde oinarrizkoko biztanleriaren piramideak erraboil itxura du; 35etik 70 urte bitarteko biztanleak dira nagusi, nahiz eta oinarrian talde franko agertzen diren. Gainera, biztanleria maskulinizatu ageri da tarteko adinetan. Leitzako eskualde oinarrizkoa da bakarrik bizi diren 80 urte edo gehiagoko gizonezkoen etxeen portzentaje txikiena (%15,3) eta muturreko pobreziaaren arriskuaren tasa txikiena (5,5%) dituztenetarik, eta ez da Nafarroako batez bestekotik sobera urruntzen beste adierazle soziodemografikoetan.

Leitzakoa dago emaitza hoberenak agertzen dituzten eskualde oinarrizkoen %25en artean, emakumezkoen (%13,1) eta gizonezkoen (%7,4) antsiolitiko eta antidepressiboen kontsumoari dagokionez, eta urteko kontrol erregistratua duten diabetiko eta hipertentsiodunen portzentajeari dagokionez (%83,1 eta %79,7, hurrenez hurren). Kontrara, emaitza okerrenak agertzen dituzten eskualde oinarrizkoen %25en artean, haurren obesitatearen prebalentziari

dagokionez (%7,4) eta emakumeen bizi itxaropenari dagokionez (83,9 urte); gizonezkoen bizi itxaropenari dagokionez, berriz, Nafarroako batez bestekoan kokatzen da (79,8 urte).

Nafarroa2000 zonifikazioan Leitzako eskualde oinarrizkoa Ipar-mendebaldeko eskualdean baitago, aurrekoek gain, ondoko orrialdeko irudian agertzen dira Ipar-mendebaldeari dagozkion adierazleak, bizimoduak, enpleguari eta ikasketa mailari buruzko inkestetatik aterak. Ipar-mendebaldeko eskualde honetan, Pirinioei loturik gazteriarri dagozkion adierazleak kalkulatzeko, emaitzarik hoberenak agertzen dira gazteen sedentarisismoari dagokionez (%16,0), gazteen eguneroko tabako kontsumoari dagokionez (%19,6) eta langabezia tasari dagokionez (%7,9). Kontrara, eskualdeko emaitzak okerrenak dira gazteen alkohol kontsumo intentsiboari dagokionez (%45,1).

3. Osasunerako baliabideak

Komunitatean osasunerako aktiboak daude, hay da, Osasuna eta ongizatea mantentzeko eta sortzeko pertsonak, komunitateak eta herriek duten gaitasuna indartzen ahal duten baliabideak (salutogenesia).

[-> Ikus eskualdeko aktiboak mapa](#)

4. Adierazleen laburpena

Ondoko irudian agertzen dira, adierzle sorta baterako, eskualdeko balioak (puntu gorria) Nafarroako batez bestekoaren aldean (barra bertikala) eta Nafarroako eskualde oinarrikoen multzoaren aldera. ADierazleen deskribapen zehatzagorik nahi izanes gero ikus daitezke haien [banakako fitxak](#), behatokiaren webgunean.

Grupo	Indicador	Periodo	Nº casos		Valor		Media		Peor	Mejor
			Zona	Zona	Zona	Navarra	Peor			
Faktore soziodemografikoak	1. Jaiotza tasa	2015	37	9,3	9,4	3,7				27,0
	2. 14-19 urteko ama duten jaioberriak	2011-2015	< 5	7,7	5,4	16,7				0,0
	3. Gehienez ere lehen mailako ikasketak dituzten gazteak #	2011	215	8,1	9,2	15,7				6,7
	4. Langabezia tasa #	2016	-	7,9	12,5	14,5				7,9
	5. Muturreko pobreziaaren arriskuaren tasa	2015	-	5,5	8,8	16,6				4,7
	6. Zahartzaroko mendekotasun indizea	2016	884	35,5	29,5	63,9				2,7
	7. Bakarrik bizi diren > 80 urteko emakumezkoen etxeak	2016	-	34,5	39,0	49,1				15,8
	8. Bakarrik bizi diren > 80 urteko gizonezkoen etxeak	2016	-	15,3	19,1	35,1				10,3
Bizimoduak	9. Partez edo guztiz amagandik edoskitzen duten 6 hilabeteko	2015	20	65,0	61,2	44,4				80,0
	10. Sedentarisinoa gazteetan (14-29 urte) #	2013	22	16,0	20,2	27,5				16,0
	11. Alkoholarekin kontsumo intentsiboa gazteetan (14-29 urte) #	2013	69	45,1	37,8	45,1				28,2
	12. Tabakoaren kontsumoa gazteetan (14-29 urte) #	2013	30	19,6	22,6	28,4				19,6
	13. Tabakoaren eguneroko kontsumoa #	2012	61	21,3	20,5	25,0				19,2
	14. Antsiolitikoaren eta antidepressiboaren kontsumoa emakumezkoetan	2016	271	13,1 *	17,7	21,9				11,7
	15. Antsiolitikoaren eta antidepressiboaren kontsumoa gizonezkoetan	2016	154	7,4 *	8,6	12,5				7,3
Gaixotze-tasa	16. Haurren obesitatearen prebalentzia (0-5 urte)	2015	13	7,4	4,3	8,7				2,0
	17. Diabetesa diagnostikaturiko pertsonen prebalentzia	2017	252	6,4	7,1	9,0				4,6
Osasun Sistema	18. HbA1c-ren neurketa duten diabetikoak	2016	216	83,1 *	67,8	47,4				94,2
	19. TA-ren neurketa duten hipertentsoak	2016	635	79,7 *	65,4	49,9				90,7
Heriotza-tasa	20. Emakumezkoen bizi-itxaropena jaiotzean	2008-2015	-	83,9 *	86,2	83,6				87,6
	21. Gizonezkoen bizi-itxaropena jaiotzean	2008-2015	-	79,8	80,1	78,0				84,1



Adierazleen iturria: 1-2: Bizit. Mugimendu Nat.; 3: Zentsua; 4: Bizit. Aktiboaren Ink.; 5: Errenta Estat.; 6-8: Errolda; 10-12: Naf. Gazteen Ink.; 13: Bizi-Baldintzen Ink.; 14-15: Botika Prest.; 9, 16-19: Oin.Osasun Lag.; 20-21: Naf. Osasun Pub. eta Lan Osas. Inst.

Eremu hauetako adierazleak: Ipar-mendebaldea (3, 4 eta 13) edo Ipar-mendebaldea + Pirinioak (10 - 12), Nafarroa 2000 zonifikazioaren arabera (NEI). Irudian adierazten diren balioen kopurua: 7 balio, 3, 4 eta 13. adierazleetan; 6 balio, 10-12. adierazleetan.

* Nabarmen desberdinak ($p < 0,05$) Nafarroako emaitzatik (bizimoduaren, gaixotze-tasaren, osasun sistemaren eta heriotza-tasaren adierazleentarako egindako kontrastea). **1.** Jaiotze-tasa gordina (%); **2.** Urteko ugalkortasun-tasa berariazkoa (%) 14-19 urteko ametan; **3.** 2. graduko ikasketak burutu ez dituzten 20-24 urteko gazteen %; **4.** Langabetuen % biztanleria aktiboaren aldean, 4 hiruhilekoko batez bestekoa; **5.** Etxeko guztien errentaren baturak pobreziaaren atalasetik behera egiten duenean, halako etxeetan bizi diren pertsonen % (kontsumo unitate bakoitzeko urteko diru-sarreraren medianaren %30, pertsonen banaketa hartuta. Pobreziaaren atalasea, 2015ean: 5150 €); **6.** ≥ 65 urteko pertsonen %, 15-64 urteko pertsona guztien aldera; **7 eta 8.** Bakarrik bizi diren ≥ 80 urteko pertsonen %, adin horretan familiaren etxebizitzetan bizi diren guztien aldean; **9.** 170-190 egunetara partez edo osotara amagandik edoskitzen duten bularreko haurren %; **10.** Ohiko jardueran nahiz aisialdian jarduera fisiko urria edo batera egiten ez duten 14 – 29 urteko gazteen %; **11.** Azken 30 eguneko kontsumo trinkoa edo betekada (*binge drinking*) egin duten 14-29 urteko gazteen % (4 EUE edo gehiago emakumeen artean, eta 5 EUE edo gehiago gizonezkoen artean, bi orduz); **12.** Eguneroko tabakoa kontsumitzen duten 14-29 urteko gazteen %; **13.** Eguneroko tabakoa kontsumitzen duten ≥ 15 urteko pertsonen %; **14 eta 15.** Azken urtean, talde hauetarikoren bateko 3 ontzi gutxienez kontsumitu dituzten pertsonen tasa doitu: N50B antsiolitikoak, N05C hipnotikoak eta lasaigarriak eta/edo N06A antidepressiboak (T. gordina: emakumezkoak 14,5 eta gizonezkoak 7,5); **16.** Obesitatearen prebalentzia doitu 0 - 5 urteko biztanlerian, OMEak haurren hazkunderako dituen patroien arabera definiturik (z-score ≥ +2); **17.** 2 motako diabetesa duten ≥ 20 urteko pertsonen prebalentzia doitu (T. gordina: 7,9); **18.** 2 motako diabetesa izanik, azken urtean hemoglobina glikosilatua (HbA1c) izan duen biztanleriaren %; **19.** Azken urtean hipertentsioa diagnostikatu eta tentsio arteriala neurtu zaion biztanleriaren %; **20 eta 21.** Pertsona bat egungo heriotzatasen arabera ustez biziko den batez besteko urte kopurua.